

## TREBAKUNTZA 2023-04: JOLASTU, JOKATU...

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* **Jolastuko dugu** harrapaketan?
2. \* Jagoba Arrasatek taldeak gaizki **jolastu** zuela aitortu zuen.
3. \* Bazkalostean musean **jolasten** geratu ziren.
4. \* Aritu bat etorriko da ikastetxera, xakean **jolasten** irakastera.
5. \* Arratsaldero **jolasten dute** parkean.

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

"Jolastuko gara" eta "jolastuko dugu" esamoldeen artean zalantza izaten dugu sarritan. "Jolastuko gara" da esamolde zuzena.

1) "Da" aditza dugu jolastu; intrantsitiboa, alegia.

a) Euskaltzaindiaren Hiztegiak honela jasotzen du:

jolastu, jolas/jolastu, jolasten da ad. Jolasaren bidez atsegin hartu, jolasean ibili, jolas egin:  
*Neskak neskekin eta mutilak mutilekin jolastu. Jolastu ginen haren ateraldiekin. Bertako zelaitxo batean jolasten ziren abesten eta dantzaz jaiegun arratsaldeetan.*

*Ederki jolastu gara: futbolean jokatu dugu.*

Oharra: \*futbolean jolastu dugu, futbolean jolastu gara(?) eta kideko esapideen lekuan, Euskaltzaindiak **futbolean jokatu** dugu, **futbolean aritu gara** eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699

b) **Bereizi egin behar dira jolastu eta jokatu** aditzak: jokatu ≠ jolastu.

Jokatu aditzak “du” erregimena du:

*Dirua jokatu dute. Pilotan jokatu dugu.*

Jolastu, berriz, “da” sailekoa da:

*Bertako zelaitxo batean jolasten ziren. Ederki jolastu gara.*

c) Jolastu esateko, beste molde hauek ere badaude: **jolasean ibili, jolas egin, jolasean ari izan, jostatu, olgetan ibili...**

2) **Zertan/zertara/zerekin... jokatu/jolastu/ibili?** Zein dira aukera egokiak?

Euskaltzaindiak besterik arautu arte, tradizioan ZERTAN ibili/jolastu esaten da:

*Pilotan, futboleak, tenisean, surfean... ibili/jokatu/jardun.*

*Piratatan, lapur-poliziatan, medikutan... jolastu.*

*Musean, kartetan, xakean, partxisean... jokatu/aritu.*

*Dendaketan, harrapaketan, sokasaltoan, panpinekin, baloiarekin... ibili/jolastu.*

Beraz:

1. **Jolastuko gara/ibiliko gara** harrapaketan?
2. Jagoba Arrasatek taldeak gaizki **jokatu** zuela aitortu zuen.
3. Bazkalostean musean **jokatzen** geratu ziren.
4. Aditu bat etorriko da ikastetxera, xakean **jokatzen** irakastera.
5. Arratsaldero **jolasten dira** parkean.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699